

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Iruña Okako hiri antolamendurako plan orokorraren eta ingurumen ebaluazio estrategikoaren idazketa kontratatzea

Alkatetzaren 2016ko irailaren 16ko 426/2016 Ebazpenaren bidez, Iruña Okako hiri antolamendurako plan orokorraren eta ingurumen ebaluazio estrategikoaren idazketa kontratatzeko klausula ekonomiko-administratiboen eta baldintza teknikoen agiria onartu da, bai eta kontratu hori esleitzeko prozedura irekirako deialdia ere. Horiek horrela, urriaren 30eko 30/2007 Legeak, sektore publikoko kontratuenak, 126. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, iragarki hau argitaratzen da:

1. Erakunde esleitzaila.
 - a) Erakundea: Iruña Okako Udala
 - b) Espedientea izapidetuko duen bulegoa: kontratazioa
 - c) Espediente zenbakia: SV 6/16
2. Kontratuaren xedea.
 - a) Xedearen azalpena: Iruña Okako hiri antolamendurako plan orokorra eta ingurumen ebaluazio estrategikoa idaztea
 - b) Gauzatzeko lekua: Iruña Oka
 - c) Gauzatzeko epea: agirian ezarritako faseak.
3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era:
 - a) Izapidetzea: arrunta.
 - b) Prozedura: irekia, ekonomia eskaintzarik onena, hainbat esleipen irizpiderekin.
4. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua: 139.406,69 euro gehi BEZaren 29.275,41 euro.
5. Bermeak
 - a) Behin-behineko bermea: ez da eskatzen.
 - b) Behin betiko bermea: esleipen zenbatekoaren ehuneko 5 (BEZa aparte).
6. Agiriak eta argibideak eskuratzea.
 - a) Erakundea: Iruña Okako Udala
 - b) Helbidea: Agirre lehendakariaren parkea, 1
 - c) Herria: 01230 Langraiz Oka
 - d) Telefonoa: 945371064
 - e) Telefaxa: 945371318
7. Kontratatzen berriazko betekizunak: ikus administrazio klausulen agiriaren 18. idatz zatian ekonomia arloko kaudimenari eta gaitasun tekniko eta profesionalari dagokiona.

8. Eskaintzak balioesteko irizpideak:

Eskaintzak balioesteko eta ekonomia eskaintzarik onena zein den zehazteko, hainbat esleipen irizpide hartuko dira kontuan. Ikus baldintza ekonomiko-administratiboan agiriaren 16. klausula.

9. Parte hartzeko eskaintzak aurkeztea.

a) Non: proposamenak Iruña Okako Udalaren Erregistro Orokorrean (Langraiz Oka) aurkeztu beharko dira, edo azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazten diren leku edo organoetarik edozeinetan.

b) Epea: hogeita sei egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken egun hori larunbata, igandea edo jaieguna bada, epea hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

c) Ordutegia: 09:30etik 13:30era, astelehenetik ostiralera.

10. Eskaintzak irekitzea.

a) Erakundea: Iruña Okako Udala

b) Helbidea: Agirre lehendakariaren parkea, 1.

c) Herria: Langraiz Oka

d) Eguna eta ordua: lizitatuzaileei behar bezala jakinaraziko zaie.

11. Iragarkien gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

12. Kontratatuzailearen profila: www.irunadeoca.eu

Langraiz Oka, 2016ko irailaren 16a

Alkate-lehendakaria

JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA